

erantzuiguzu...



943 300 228



zuzendaritari@jalgi.com

Non dago baserriaren etorkizuna?

■ **Nik, kalekumea izaki,** baserriaren etorkizuna modu batera ikusten dut. Ziur naiz baserrian bizi den norbaitentzat niri iritziak ez duela ezertarako balio izango, baina hala ere, emango dut. Baserriak etorkizuna baduela uste dut. Hirriak izugarri ari zaizkigu betetzen: bai lantegi, auto, etxe eta populuz. Saturazioa nabarmena da. Gure bailarak betetzen ari

Ez dira argitaratuko izenik gabe iristen diren mezuak. Izen-abizenak eta telefono zenbakia eman behar dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak badu horretarako eskubidea.

gara. Goazen eran ez dugu tokirik izango gure umeentzat. Norbaitek esango dit oso ezkorra naizela eta gauzak neurritz kanpo ateratzen ditudala. Ezta hurrik eman ere! Gure hirietako ingurugiroa ikusi besterik ez dago. Baserriak eta nekazal guneak zain-

du behar ditugu. Pixkanaka-pixkanaka baserriari begira hasiko gara berriro. Produktzeko aukera desberdinak eskaintzen dizkigu baserriak eta hirietako lan erritmo itogarriari alternatiba emateko egokia dela uste dut. Beraz, baserriaren etorkizunean

sinisten dut eta prest nago bere alde lan egiteko. **Miguel Alkorta** (Donostia)

■ **Baserri eta produkzio** handietan dago etorkizuna. Landa txikiak ez dute indarririk Europar leihatze. Beraz, kontzentrazioetara jo beharko dugu aurrera egin nahi badugu. Kalitateari ere duen garrantzia emanez. **A. Aranberri** (Tolosa)




galdeiozu...

Txillardegí

IDAZLEA

Euskaltzaindian debekatua, UPVn nahiko alboratua, politikan, soilik, argazkian agertzeko deitua. Zer gertatzen da gure Euskal Herrian?

Joseba Tobar-Arbulu




■ **EUSKALTZAINDIARI** buruz ez dut ezer esatekorik. Ez banaute nahi, ez naute nahi, eta kito. UPVri buruz ere ez dut zeresanik. Politikari buruzko kontua ulergarriagoa da. Ni elementu autonomoa naiz eta ez ditut gustukoak olatuak eta modak. Beti modetatik at egon izan naiz, eta politikan jarrera hori ordaindu egiten da.

Martxoaren 2tik aurrera

Imanol Lazkano • EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEKO LEHENDAKARIA izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua.

Bidali zure galderak ordurako.



zuzendaritari



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

Eguesibarko udala eta CDN Euskara irentsi ezinik

Iruñerriko Euskal Herrian Euskaraz taldeak Eguesibarko Udalaren jokaera salatu nahi du.

Aparejadore-arkitektoa kontratatu nahian, euskara jakiteari oposizio-lehiaketako gehieneko puntuazioaren %4,24 eman zion.

Eguesibarko hiritar batek helegitea aurkeztu zuen, eremu mistoan euskara meritu gisa hartzen denetan gutxienezko puntuazioa % 5 izan behar delako, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautu zuen Dekretuaren arabera.

Nafarroako Administrazio Auzitegiak halaxe ulertu ondoren, % 5 puntuatzea agindu zuen.

Eguesibarko Udalak, ordea, Dekretuaren irakurketa murriztaile egiten du, eta ez du gutxieneko protzentaiarik onartzen.

Nafarroako Auzitegi Nagusiaren aurrean administrazio aferetako helegitea tartekatu du, aurrez aipatutako epaiaren aurka.

CDN alderdiak du alkatetza Eguesibarrean. Orain dela gutxi *Bai Euskarari* akordioa izenpetu zuen, beste alderdiekin batera, euskararen normalizaziorako Plan Orokorren eske.

Baina ez da gauza UPNren Gobernuak tajutu zuen Dekretua onartzeko, nahiz eta Dekretu hori Juan Cruz Alli bere Lehendakariaren garaikoa izan. Eta Merino epaile ospetsua buru duen Auzitegiaren esku utzi du interpretazioa.

Zoritxarrez, ez da CDNren inkoherentzia erakusten duen kasu bakana.

Hor dugu Iruñeko Udalean Toponimia Batzordeko adituen

proposamenari bere ezetza. *Diario de Navarra*-ren presioei men eginenez.

Hor dugu CDNkoa den Iruñeko Udaleko Alkateak 198 langileri emandako ezetza. Euskararen Ordenantza bete ahal izateko euskara eskolak lan ordutegi barruan sartzea eskatu zutenean.

Euskararen aldeko itxura eman nahi du, marketing operazio batean. Baina CDNk agintzen duen tokietan euskararen aldeko zer-bait ateratzeko orduan atzera egiten du, eta oposaketa batean euskaraz jakitea % 5 puntuatzea helegite baten jomuga bihurtu du.

Nahikoa da! Itxurak egin ondoren egunerokotasunean euskara tratatzea ez da zilegi. Eguesibarko Udalak bere helegitea bertan behera utzi beharko luke, euskal-

dunokiko sentsibilitate pittin bat erakutsi nahi izanez gero. **Beñat Goñi** • IRUÑEA

Txakur kontuak

Jendea baino txakur gehiago ikusi daiteke azken aldiak Donostiako pasealeku nagusienean. Ez nago txakurrak paseiatzearen aurka. Bai ordea kontrolik gabe edonora eramatearen aurka. Era orotako jabeak daude, ezin ukatu hori. Txakurrak ongi eta txukun zaintzeaz gain, ongi hezitzen dituztenak. Alderantziko kasuak ere gero eta ugariagoak dira ordea. Izan ere, aurreko astean zaunka, amorrutz, hasi zitzaigun txakur bat, eta bere jabeak ere ezin izan zion erraz eutsi. Txakurrak ez zuela haginka egiten esan zigun gero jabeak. Akaso egia zen, baina denboraldi batean sustoa ez zaigu joango ordea. **Miren Mugertza** • ERRENTERIA

• MONTXO •

